

EUSKAL ERIA'REN ERES EZITZEA

OLAIZOLA'TAR JOSEBA



Esta Conferencia “La educación musical del País Vasco” fue leída por el compositor vasco Joseba Olaizola Gabarain (Hernani. 1893 - Donostia. 1959) en el Congreso Internacional de Estudios Vascos de Biarritz en 1948. En el mismo intervinieron eminentes profesores vascos y no vascos venidos de diversos países de Europa y América. Las Actas del Congreso no se editaron, pero algunas de las ponencias están siendo recuperadas en la actualidad por la Sociedad de Estudios Vascos. Creemos que su edición, tal y como fueron escritas en su momento, son el mejor documentos de la época.

Gure asabak itz laburko gizonak zirela éran dioute. Gure egunetan ere maiz aski entzun izan degu: “itz gutxi ta ari adi”. Éran nai dute: ixil adi ta egin zak éran dekena. Orixe nai nuke nik lan onen ondorena. Bertzetik, Batzar ontan yakitzuak erabil beár dituzten lan eder zakonetara beár dira zintzo gure buru-belári.

Mortuetara aize-búrumbak bazter giñuzten umeok, mortu-begiekiñ ikusten ditugu uri-érietako zerzebada ta zeregiñak. Anitz aldiz begi-ertz malkoa zaigu ager. Ama'ren masai zuri-zimeletik be, ala iduri.

Írati aizustel zaleak anaien biotz-zapustu béri eman digu. Béri orixe elo-íarantza baño zorotzago sar zaigu biotzean. Gure anai'aunitzen gogo-biotzak eres zale dira, baño zaletasun ori asetzearen ez-diyoz itur-buru garbietara. Zaa'ren eri-eresi ezti-garbiyak eztiye dei. Eres-nagusi goitakorena aspergarí zaye. Mozart eta Beethoven, ordu-erdi'tik aúrera, ezi dute. Eziña, eri-eresi ta eres-nagusi buruz. Írati radio inguru, bi ta iru ordu zenbait eres-ariñ txoro entzunaz ¡zeiñ atsegintzu...!

Donostian bertan, oraintzu amabost urte ta aúetik, Orkestak antzokietan egin oi-zituzten eresaldietan ereslariak ordaintzearen bear zuten txindia etzuten irabazten. Órdu ezkeroz orkestak ez-dabiltz esan oi-dan bezela, esne gañetan, Zine, antza ta irati-tako eres-ariñ txoroak nagusi dira. Gure Ériya aize beriz osa bear da. Ezitze be'ria'ren bear da. Ara nere iritzia. Nere lantxo onen banatze bat edo beste, luze ager litekela deizkiot, ala, baña, nere asmoa ta len éran detaria betetzearen batetik, bertzetik beriz, nere lantxo au berandu-lana dalakoz, labur izango naizazue.

Gaitz-sustraya ¿non?

Gaitza'ren sustraya nondik sor izan dan nik beziñ ondo dakizue. Guk goguan ditugun urteetan gure Éria'ri zer eres-mota eman diye? Oroí lengo ta oraingo antzoki lana. Zakartenai ona ta ondo bazeizkiyon, guretzat, etzan eta ez-ta egokiya. Ori, euskaldun biotza'ri beria lapurtzea da. Lur

bakoitzak bere azimota nai, érne, da beár da igalia eman dezan. Okérekoa eman zayonean érne txárak, igali txár dakár. Euskaldun biotzean erein duten eres-azi-mota ofek igali txárak eman ditu. Euskalduna dala dioten masail gofi-dun gaztea'ren españak, eresi ariñ-lizuna dariotenean, lotsaz arpegia gofitzen zait. Noruntz goaz gazte oren biotza lizunak zaputz egin ba-dio? Espa gabe, Uri ta baseriyak lizuntzen dituzten antzoki-zine ta írati zaleak ikus, zakelera daramazuen txindi ori, éria'ri egin diozuten kaltea, ordaiñ eziñ diozutela. Oroí anai, nere itzak ez aizela, non-naikoa dalarik, eres ona'ri zigoí emateko. Nere zigofa bertzeetara dijoa. Ona etxean sartzen zaigunean, ez da okerik: elkarteá efexa da euren artean, bakoitza berea'ren jabe da-ta. Gaiztoak ditu bere lanak, lapúreta dakárelako.

Bertze gaitz bat ere...

Oek, éria'ri ondotoxo itzasiak: múrga ta aspo.

Jaun-andreak, bizi biarák edo... nik ez-dakit, Ostalaria'ren zagi ardoa ustu bear dala ta, murga beár eriyán, auzoeta'tik gaztediya ekárerazteko. Eztabiltz oker ez; gaizki ezitako gaztediya noruntz diyoan ba-dakie. Urte betian Eslaba'ren lenengo zatiya ikasi, beste urte betean aiz emango diyoan ereskiña, ta, chotis eta, tango ártian yoango zaye biziya. Gaztedi óri gogai-kari zayo zaafetatik datorkiyen ereasi garbi kútuna. Eresi goitikofaz, asper dira entzun aúretik. Emekeri ta arinkeriyak menpe dauzka. Miñ-biziya bezela lizuna sar zaye muñetaraño.

Gauz abek ez dira irudikor baten asmaketak. Gaitz barne dago. Emen ez ta txorakeri'rik. Éria'ren Osasuna, beár dan garantzis ikusten dutenak, begira ártaz. Nere aberi maitea, ez bedi izan lizunaz il dan gaztedia'ren obi. Edonoréntzat itxaropena dan gaztedia, nik maite dut, eta arpegi alai, begi bizi ta dizdirakor, osasuntzu nai det. Bere arpegiaren goí edera, eresi lizuna'ren aize ustelak ez-beza ilun.

¡Aspo madarikatua!

Aya'ko eztaí-egun uraxe beti'ko barne sar zitzaidan.

Berta'ko aspo-yoalia'ri mendi-usaiko eresi alayak atsegintzu entzun bai nizkion da, eguerdi aldira eztaí-taldeaz batera Donostia'tik ager zan azpolari ároak on aundi'rik etziran, egiñ. Binagre, Loyola, ta Donostia'ko beste zenbait auzotan anbaste aldiz yo'tako tango ta mazurkas Aya'ko mendiyak bete zituen.

Aya'ko aspolari apala, mintzu zan. Donostia'ko aspolaria'ri entzun zizkion mazurka ta tango bere mendi-eresi alaiak baño edéragoak zirela uste izan zuen. ¡Ago ixilik Aya'ko aspolari apal ori! Ire mendi-eresi bikaiñ alayak beste astaputz áro árek Binagre ta beste zulo eta, ekári zizkigunak baño edérago ta entzungariagoak zitzaizkiguen. Nere lantxo onen gayak galerazi ez paitira, ire ta bestea'ren aspo erabiltze buruz bi egi t'erdí esango

niskikek. Yakiñ nai nikek, gero'ra, i ere, mazurka ta polka neúrietan sár oteitzaken.

Ez nago Iztueta'rekiñ. Eresidun txistulariak atze-eresi ekarle ez-tira. Iarai sasi-txistulariai, sári entzun-al izango diozute, Pasko egunaz nik Aya'ko sasi-txistularia'ri efi-etxe-au'ean entzun nion bezela, "La Muneira", edota óren antzeko besteren bat. Bedayo'ko sasi txistulariak Zumáragako euskera egunian, lenen Españako Marcha Real'a, ta gero, bertako Himno de Riego. Oyala kutxa barne bezela sasi-txistularia mendi barne beti balego, Binagre ta beste zuluetaoengandik urun, neretzat oek one-nak. Baña Iaun-Andre ez-yakiña itxua da. Ez du ikusten eta ezin berexi. Bat eta beste berdín zayo. Gure Éria'ri eres-ezitzea beára zayo. Lan órtan, yoan ziren úrteetan, Euzkadi'ko txistulari Biltzarak euren artean lan ego-kiya egin zula eziñ uka. Lan óren bitartez-Euskal Éri'ko txistulari'en ártean bat baka'rik ez-ta txistu-eresi gayetan txuria'ri beltz esango dionik. Iakitea bear, zakona ez-pada ere. Iakite apur bat danean, ezitzea gaitz ez-ta. Sasi-txistulariakíñ ordea, zango motzak ez-izatekotz, zaitzeketa ori ez-da éresa. Uri-zuloetan entzun-al baitítu Machicha ta abar? Nik maiteago ditut ondo ezitako eresdun txistulariak, sasi-txistuba ez-yakiñ ibiltariak baño.

NON'DIK GIYOAZKEN EUSKAL ÉRIA'RI BERE ERES-EZITZE ONA EMATEKOTZ

Abesbatzak (Orpheon)

Oyanian xixa bezela sortzen dira Euskal Éri'yan abesbatzak. Lur'ak xixak bereak ba-ditu ta, gure Ériya abesla'ri gabe eziñ. Bi, iru, lau euskaldun elkafe'kiñ? abesbatza beriala. Sári emanen dute bere biotzen béri: geyenetan maitasun-abestiyak daramaski; edo-ta maitearentzat; edo-ta abería'rentzat. Ba'ditue alayak ere; baño beti garbi, ezitze ona'ri zayon bezela.

Besterat doazenak ere ager' dira. Bakoitza berea'ro bila. Baña ezitzea nola dan dabilz bat eta beste. Ériyak maiteago duan beste eresbatzik? Ez orixe. Ériyak bere berea du abesbatza. Bere érayetan érne ta márdul sortzen dana da abesbatza. Euskalduna'ri ez esan abeslaria ez-tanik.

Iaun-andreak: ori ofela dala-ta edonork igári lezayoke, Euskal-Éria'ri eres-zaitze ona ematekotz, bide labur' eta érezena auxe dala.

Zenbait eres-mota gorenekua Eria'ri ematekotz ori aski ez-dala badakigu. Óretaz ere azkenean itzegiñen degu. Baña bitartean, ara nere iritz-pidea: lu'ra yo'ra ta ongaritzea, abesbatza'rentzat éri-abesti ta beste abesti zakon'en bi'dez. Gero, eresi gorenekua'ren azi-ereintza Orkesta nagusia'rentzat, eta bien ártian, gure biotz-muñe'ko txistulariak. Ara ó resmaladi osoa bete-al lezateken eresbatz irukóra.

Ez nezake uka, beste eres-batza bat edo, ere eres-batza (Harmonie) oen laguntzale izan litekela, baño... uri ta éri aundi'takoak ken ezkerero, nork ez-taki, ba, ostalaria'ren zagi-árdoa ustu-erazte áren sor-arazi dituzte-la?

Oraintxen bai, pozik, dezayotedala nere agúrik maitetsuena Galdakano ta beste éri batzuetan ere ezitze-lan ontan ain zintzo yárai izan-ziyoten éri-eres-batz bikañai.

Éri-eres-batzak (Bandas de música)

Ondo año gaizki esan-arazi biár diran gai auxek ez-det oso gogo. Baña, sustrai txarák ken nai-izan ezkereroz, aitzurá ibil beár. Bakoitzak berea ardezala, ba:

Gure Ériyan zoritxaréko garai batian, éri bakoitzak txikien zala ere, éri-eres-batza beár... Amar, emezortzi, ogei ereslari bederik osa ezkereroz, "turu-tuka", Tango ta Polka, yolari ospetsuak beítan ¡Olakorik! ¡Lotsagari'rik ba-da, ori bai lotsagari! ¡Ara ó eres-ezitze bikaña! "Do, fa, sol" bi, iru, lau neurítan eta... Agur Beethoven! Agur Mussorgski! ¡Bazoazteke ilunpe'era! Éri oetan zuen bear ez-tira. Zuen disdiradak etzaizkie argi. Zubei ezik, euren, zaáretatik datozkiyen abes-eresi bikaiñ goitikorai ere, musin diye...

Éri oyetan gizaldi osoa yoan'go zaye, dantza eresi ariñ ártan. Eresi ona'ren argi-dizdirak ez-diye euren begiyai argi emango.

Éri'ko udal-laguntzak órta badoaz, etzaye zór aundi'rik izango.

Gogaikerietan gogaikariena zitzaigun, éri'ko jayetán auzo-é'rik auren éri'ra éri-eres-batzak, gaztiak dantzazteko endore-udalak zaramazkie-nian. Ez-yakindunak etziran orook ¡Ainbeste ez-jakiteáren ba... buruan txapelik ez yari!

Dantzazteko sor izan ziran tango yoale éri-eres-batzak yo ditugu, ta befiz ere yo nai ginduke, gure ériai egin dioten kaltia aundia dalakoz: gaztedia arinkerí'ra iraul eta ezitze ona'ren bideak itxi.

Oen artian nas ez-beár dirala ta éri aundi batzuetako éri-eres-batzak, ór-tan gera; euren eres lana goitiagokua dalako, batzubena, beintzat; be'riena... erdizka gau'rik, dantza-eresi ariñ; biar... bertzerakua...

Gure eres-ezitze-lana, érolan doan ur zikiñak ez-dezala eraman. Írati ta éri-eres-batz lagundu beár ditugu.

Gure Ériak badaki dantzan. Eta bertzei non ez-bezela. Baña dantza'ra-ko, oiñ zango astintzeko,

Txistulariak

A emen, gure Ériyan beti'ko érne ta ugaritzu órni izan ziran txistulariak. Maiteena berak ditugu. Gure Ériyan txistulari gabe jai'rik ez-ta. Igan-

de, ta jai-ospetsu, txistulariak adira diye ériyai jaya'ren eguna. Elizak ere, bere jai aundienetan dei diye. Nagusi-etxeoandre egunetan, txistulari'en bazkal-ondo eres-aldiya, etxe ártan atsegiñen. ¿Nork ez-tu entzun burumakur Endoria'ri eskeiñi dioten "Alkate-Soñua"?

¡Txistulariak!: nere Abéria'ren ekandu eusle bikañ eta zintzoenak, Agur.

Gure Ériyan, bi eginkizun, dantzarazi, ta eres-aldi txukunago ta zintzoago bete duen beste eres-batzik txistulariak baño ez-ta. Gure eres-ezitze lana'ri egokiago lagun leikiyokenik ere ez. Dantzan eta bere eres-aldiyetan, éri ta gaztedia'ri ezitze ona eman diye. Aúrerantzian ere Éri ta eresi gorenekuen ártian bitarte zintzoagorik beste'rik eziñ izan.

Txistulariak: yarai len'go bidea'ri. Euskaldun gaztedia garbi dantzarazi; alai ezi. Zuen txistu alai yostakoñak eztiki za' bitza euskal-biotzetan zaaren eresi bikain, bizi, ezti ta goitikoñak.

Ezin ixil Jaun-andreak. Donostian, Garai batian, txistulariak nagi ta aspergari zabiltzala, bertako endore il-tzan batek oek ken eta txistulari gabe Donostia ustea erabaki zuen. Baña, Iainkoak ala nai-ta, edo, udalberitzea zala, ni ere udal berí'ra eraman ninduten. Auntzak lárera, éran oida-ta ni ere nere'ra. Ordu arte udal zeya'n dantzatzen ziran bi nezka koxkoñak, egun'etik egunera ugari egiñ ziran. Txistula'ri za'ai zartzarako laguntza eman zitzen eta txertu béri bidez, Ansorena azkára buru zutela Txistulari-batza sor egiñ nun. Dantza sariketa batetik; bertetik eres-batzaldia; igande yayetan biribilketa eta abar, Donostia'ri euskal-okol beria sa' geniyon bere sañetan. Odol beria'rekin baita ere lu'ra iraul, eres-ezitze on bat ereiteko. Au'etik or' diyoa txistularientzat eska nai nukena. "*Éri lanetan berak izan ditezela lenen, txistularitza'ri alik ondoen euste-áren*". "*Euskal Éri osoan zabal ditezela txistu-ikastolak txistula'rien esku Urtemugan, asterketa-bidez, eta sarigari, txistu yo-tze ez-ezik, bear'enekotz, buruz, alik geienen eresi zaar, dantzatzeko ta bertze, yotzea izatea. Ara gaurkotz txistularien omenaz eske natorkizuena*".

Ikastolak

¡Ikastola! Gure ao'ak begirapen eta ardura goiekoz esan bea' lukien itz zakona: ¡Ikastola! ¡zenbat on egin dezu! Ala-baña ¡zenbat kalte ere... Zu zera argi ta sustrai ona'ren iturburu ta lu' eraldua. Landare gaztea'ren zaintza eta ezitzea zure esku daukazu. Zure bete bea' goitiko' ori, gure Lu'ean, zintzo ta zuzena izan deyen gabiltz.

Edonun'dik datozkigularik, on-iduri dana, on zaigu, ta argi-bide argenezake, nik uste.

Gazte-en ezitze lanean ¿ote beste bat eresia aña'ko'rik? Eresiak zuzen biotzera yo-tzen du. Batez ere zaarétatik datorkigunak. Gure muñetako muñetan sórtua dalako. Gure odoleko odolean. Gure aizeetan bertan. Gure alai ta oña'zeak dakarskie. Gure intziri yo ta naiak. Gure gogo-bio-

tzen tupada ta maitasunak. ¡Oi! Ene Aberi maitean sor izan ziñaten éri-eres asperen garbiyak, zerk, zuek ala aurtxo'aren biotz bigunean ezitze edér ori egiñ lezake?

Ni ez naiz, ez-ta zuek ere, uste-iritzi onen sortzale; euren éri-ikastoletan, aitzinietik, aurái éri-abestia ikas-arazi dioten uri aundiak baño.

Lan auxe bear bezela betetzeařen-oraindik beste zertxo bat éranen dut gai onetas, “Eres-Ikastol-Nausi” buruz zer esana datorkidanian-ara nere eska-bideak: I'nen “Euskel-Eri-aúr-ikastoletan, lenengo'tik azkenerárte izanen diran maña danetan, euskel-éri-abestiak aurái abes-eragitea”. II'en: “Aurtxoan abots zaintza”.

Landara bere sortzean zain-izan. Ikastol-erakusleak, edo-ta bértzeren batek.

Eres-Ikastola-Nagusia

Eres-Ikastola-Nagusia geyenetan, ikaskuntzak ór-nonbait ibiltzen dira. Ikaskuntzak ez-ezik, idaztiak ere. Bai egile, ta era-banatze. Guziyak berdintxu. Ikastola Nausia dan alde'tik, berari dagozkiyo eres-lan garantzizuenak. Bertan sor izango dira gure Éria'ren ereslari ospetsuenak. Baita, baño, bertan sor-arazi biar ditugu, érdizka bederik, eres-zaletasurrizintzo ta zuzena izango duten ereslariyak. A emen, eres-ezitze ziúr eta ona'ren sus-traya: Txistulari, abes-batz eta aur'-ikastolak alde batetik; bertzetik, oen lana osatuaz, “Eres-Ikatola-Nausia” bere ikaskuntz zakun-goitikoraz.

Ortara noa. Ez-deikitutet itz egiñ Eres-Ikastol-Nausiari buruz, bere lan oroorkoraz, bere bete-bear goitikořaz guzoi esagun zaizuelakoz. Gaur ni bertzera noa bereziki: gure Eres-Ikastol-Nagusiak, alegia, euzko buruz, bertze bete bear bi dituela, gaurkoz bertze alde-etan diranakin orokortasunik ez duena. Ara emen.

“Ikaskuntz labuřa” dezayoketena, bata. Bertzea, “Euzko-éri-eres abes-tea”. Bata eta bertze ¿nola? Ez da sorginkeriya, beroyek egitea. “Ikaskuntz labuřa”. Berak dion bezela, ikaskuntz laburtua. Bertze ikaskuntz nausien, érđi baño gutxiyo, ta lenengo'tik, asieratik. Era ontara gure Éria, biotzez ezik yakitez ere ereslari litzake. Gure Éria, eres-yakite zale da; ez-paitute orđea, yakite ori bizi-bidetzaz nai? Ala baña, gaur gure Eres-Ikastola-Nausi-tan oentzat era-berezi bi arlitzaken ikaskuntzik ez-ta. Zerbait nai duenak beriz irakaslari bat orđain bear... Eta guzik ez izan aberaskume...

“Éri-eres abestea” bigařen, éran dizutet. Bai jaun-andreak, lan ontan geiegirik ez-ta. Gu men-pe gauzkan zorigaitza'ren ume ez-tiran Éri-nausik, ezin obe, euren aurtxoan biotz bigunetan bereziki éri-abestia'ren azia erein ba-dute, guk, begi ertzean malkuak ditugula gure aurtxoan ezitze txara ikusi degunok, bizi giñezke egiñ bear aundi ori bete gabe? Nik ez-takit, jaun-andreak, nere ama zanak bere magalean ain maiteki abes izan zizki-

dan éri-abesti maite ezti aiek, zer egiñ zezateken nere biotzean; nik daki-tena da, nere biotza'ren kutunak berak dirala; nere burubiotzean muñeta-raño berak sar dirala; gora beera, berak beti; euren izkuntza nere-tzat ederen eta eztiena. ¡Ene gurasoen abesti biguñ, maitealai garbiya, maitagáriya zeralarik, ¿Zer dala ta maite etzaitue zedofi sor izan ziñuenen umiak? Maitatzen al-da, baña, ezagutzen ez-tana?

Ume-en biotzak ase ditzagun éri-eres-ituñi-tik datorgun uraz. Berak ez eta ase beye biotza. Eres ezitze ona'rentzat zer eraltze obea, umeen biotzean éri-abesti bidez egiten dan eraltzea baño?

Ume oietan zaletasun on bat ezik, sor liteke efes-etoria. Ara, bigar, abefia'ren eres-egile zintzo izanen dana.

Entzun, Saint Saens ospetsuak diona. “Nere efesi-etoria amak abes izan zizkiran éri-abestiai zor diet. Nere sor-ituñia'ren ugaria berak eman die.”

Wagner'ek ere naiz ta ori bera esan ez, garbi adirazten du eres-etoria ez-tagola eria'ren ituñian baño. Berak kistar-orokorai, Eliz-abestietan esaten diye. Elizan, edo-ta Eliz-atan, éria'ren abestiak beintzat.

Eres-Ikastola-Nausia'k ume'ai éri-abestiak abesarazi ez-ezik, beste bide batzuk ere bere esku dauka éri abesti ta eres-ezitze ona'ren alde: ikasle'ren batek sor lezaken euzko-eresia bereziki bere orkestaz yoaz eta itzaldi bidez...

Ara, Euskal-Eriñjan izanen diran Éri-Ikastola-Nausi'ai nik eska nezayotekena: Beste edonungo Ikastol-Nausiakiñ orokor' dutenen gañera: “eres ikaskuntz labur'a” ta euskal abestiak bereziki, umeai abes-arazitzea”.

Gure Eres-Ikastol-Nausi'k izan bitez, bereziki bere aberia'ren eresia'ri zintzo yafai izango diyen eres-gile-en iturburua. Bakoitzak du banetik ematen du. Ase-bete bitez lenen eta emanen dute.

Iratia.

Txapela ken, eta buru-makur, agurtze-aut gure aldi onen asmatze arigaria. Ez-adi, ordia, afo, Iauna'ren aintziñean bere argia'ren izpi baño ez-aiz ta... Ik ere, on aña kalte egin den. Gizona'ren eskun gauzik onenak maiz okertzen diñun. Guretzat lagun lagungari izan adi, ire biar gaitun da.

Yaun-andre: nere biotza aspef da anai buru miñgari yarduten. Naiago det maitasun-ele erabili.

Iráti aintziñean dakusten ene anai, ire biotz ori nola ase dezakek éroren ama il-lafian daukan eres-abesti ariñ lizunaz? ¿Ez-dakik, ba, ala berean ire anai anitz ilgari dauzkala? Etzeok esaterik “neri atsegiñ zaizkit, ez-tire kalterik egiñ”. Ortaraz, etzeok ezer esaterik alboan osalariya duala, gaxorik dagon gaztea'tzas: jatsegiñak gal'dik eta! Ene anaiak: gure gogo-bámen eztena sar-bedi zorotzago.

Irati-gaiaz gauz-eder' anitz éran digu gure aiskide maite dan Gortazar yaun zintzo azkarak.

Guk, yárai orain, egiñ bear deguna'ri.

Bertatik Irati zaleai eska biar diyegu, eres-abesti ariñ-emekiak gutxien eman ditzatela, eta eres gorenekuai ere, bide berí. Euskel-eres-abestiak euren Eríyan eskale eziñ izan litezke. Beren bideak zabal bitez.

¡Biotz zintzo on batek lan ontan zenbat bide idiki litzazke! Ikastol-ume, abeslari ta txistularien ártian batzar-sariketak, itzaldi ta abár... Irati batek aña lan, gure Éria'ren eres-ezitz ontan, beste batek... Etxe-zuloan sártzen bai-zaizu... Goizetik áratz, otórdu, beti yardunean... Bertzeak... zedóri euren bíla ez-pazabiltz...

¡Txapela ken, eta buru-makur, agurtze-aut gure adi onen asmatze árigaría! Ez-adi, ordia, afo, Yaunaren aintziñean bere aрги izpi bat baño ezaiz ta... Gure lagungári izan adi ire biar gaitun da.

Antzokia

Antzokia ere, merkatarien esku zef begira ugari eman du. Ala baña, antziñan eres-arinkeriak beragandik zetozkigularik, eresi bezela, orain-go'en emekeri kaltegarí'rik etzuten; geyenak ariñak izan-áren, euren érikutsudunak ziran. Gaur bereziki, emekeritasuna dariote. Emekeri ori darabilte zine-eresi, írati ta antzoki. Emekeriz emetzea ez-da árigári. Gaur zenbait gazte'ri ao'tik ager' zaye, euren biotza'ren emekeria. Muziñ darayoe euskel-abesti liraña'ren ezta'ri. Euren alai garbia etzayoe atsegiñ.

Yo dezagun zuzen. Aize-beritze ontan lendik zerbait egin izan da: Pudente, Iparagíre, Pasayan, Bide Onera, Ixidor eta Libe, Txanton Pipéri, Anboto, Maitena, Mirentxu, Mendi-Mendiyan, Amaya ta abár. Neronek ere "Oleskari Zára"'ren izena'rekiñ antzoki-eres lantxo bat egiñ izan oidet. Eusko-Ikaskuntzak leen-aldiz Oñatin egin zuan Batzafean ager izanzana. Baña lan oni, bide ontan egiñ beár diran bertze lanei ere, Gobernu, Aldundi ta Udalak bereziki lagundu beár diye. Oen laguntza gabe ez-leike zabal. Laguntz ori beára zaigu, Eres-euzko-antzokiak berea bete nai badu. Edonun'go beste eríak ori egiñ dute. Gureak ere egiñ lezakete. Egiñ bezate, ba, ta Euskal-Eríyak izanen du bere "Eres-Antzoki-Nausia".

Órkesta-Nausia.

Éran det lendik: lan-banatze ontan zati bat edo beste luze litzekela, nai-aña. Oraintxe darabilten-au, eta aúrekuak ere, bereziki luza litezke, noski. Ala baña, ¿noraiño yoan giñezke lantxo onekiñ? Naiago det, gero, besteren batek xeetasun geiago'rekin luza dezan. Beára izanen da ekiñ oni yárai nai-bazayo.

Nere kutuna orkesta da. Baña nere bertze maitiak baztára-rat utzi gabe. Gañera, orkesta'ren aintzinean bear dira. Txistulariak, Abes-batzak, Uri-eres-batzak eta Eres-Ikastol Nausia. Oek gabe orkesta eziñ. Yári al-izan ez-kero ere, iraun eziñ lezake. Orkestak oraindaño bizi eziñian ibili dira. Éria ez-pai-ta erakus-bide ortatik eraman?

Gure ártian edo-nork daki, eresi-zaar (clásico) yo'lari, diran “iru'ki” “lau'ki” ta abar, esne-gaiñ zaizkigula. Ori baña, bidez-bide ezta. Ori, mendia'ren galur-galurean ibiltzea da. Abaraska ezik ezta esku-izatia. Iruki, lauki ta abar goren diranen ártian gorenak berak dira. Gure aoa'ren kutisi. Ériak ez-ditu oraindik aiñ beriak. Ori dala-ta, bide bezela eziñ ar-gintzaskegu Orkesta'ren esku'tik yoan bear dira; eta bereziki, orkesta'ren úren'go malaráño; eresimendia'ren gafureáño.

Nere lantxo-au zubei orkesta zer dan erakusteáren ez-ta. Éria'ren eresi-zaintze lanean, bereziki, berak zenbat lezaken agertzia baño.

Éri batian, ondo landu dan lúretik sor egiñ dan Orkesta on bat danian, berak dasa, yakite gaietasgoi maletan dabílela.

Txistulari ta éri-eres-batza Donostian era-béri giñunian, naiz-ta oraindik eres-ikastola-nausin gure naia zan bezela euskal-éri-abestik abesten asi ez, Orkesta béri baten oñ-aíria'k ezartzen giñan. Orkesta béria Gipuzkoa begira ziyoan. Aldundi osoa gurekiñ gendun, eta ereslarien órdaiñ-saria noraiño izan zitekien ikustean Aldundia'ren izenian, aldun zan Eizagíre Yoseba yauna zan, nere lagun.

Asmo ori, asmo geldi zan. Aize-aldatzean bastararat zuan.

Gerostik, urteak yoan diralarik, bide ortan gauza béririk ez-ta egiñ. Gutxi gora-bera len-go bidetik diyoaz urak. Len-beziñ eztu; len-beziñ lafi...

Lufa ongariz eraldu ta azi bériya erein bear da, landara mardul-iraunkoá sof deyen.

Eresi-on-zaleak euren ártian ba-ditue eresi ona zabal-arazten dituen elkaríteak. Euren ekiña, bakárdari, bi, iru eta lau'ren artean egiñ allitezken eres aldietara diyoa. Baña au, lendik landua dagon lufarentzat da. Edozeñentzat ez-ta. Ala ere, guztiz txalogária da egiten dutena. Bertzerik ere egin nai dutela ba-dakigu. Txindia biar baño... ¡Bejondayela! Donostiako “Asociación de Cultura Musical” eta onen antzera gure Ériyan eresi-on alde lan egiten duten guziyai. Txindia duten érietan gorago ere ba-dabiltz, zenbait eresi-on zaleen elkaríte. Amerika aldi bat edo beste'ren béria badegu.

Baña Euskal-Ériyan txindiz úri gabiltz eta goi'tik etóri bear da laguntza. Ori dala, ta, gure seta ez-da bigun izanen, Euskal-Éri osoan, Orkesta oro-koá, “orkesta nausia” Euskal-Éri guzian aldizka entzun al-izanen dana ez-padegu ikusten.

Euskal-Ériyak beste'ren ereslari bíla yoan bearík ez-tu. Eure ume artian dabiltz ospetsuenak. Ala-baña, artezkaritza aldizka eskus alda bear da.

Bertzela, beti baten esku, nagi ta aspergári da. Orkesta eresia, liliz betea dan zelai zabal bat bezela da ta begi bakoitzat bere lilia ikusten du, bere ustez politena. Ori bear da: artezkari bakoitzak ager-deigula bere begiak ikusi duen lili politena. Erí oi-tan ¿zenbat lili polit gure begiak ikus lezaketen... !

Yaun-andreak, azkena det. Euskal Eria'ren eres-zaintze buruz, egin litekena ikusi degu. Egin litekena badakigu. Egin lezakenak, egiñ beza.

Oroi, "Orkesta-nausi" eskale naizela. Orkesta Nausia ez-ta txoro'en orkesta. Ereslari bikañenak bear dira. Artezkari ospetsuenak bera artesten.

Euskalduna yatoñiz ereslaria da. Soñera berez datorkiyo. Ama'ren bularék érne dio biotzean eres aziya. Euskalduna, alai, ala oñazetzu, bere elia, eresia; abesti biguñ ezta.

Emaiogun eresi ona, eta Eukal-Eriya zuzen yoanen da eres-ezitze ona'ren bide'tik.

Jaun-Andreak: ez aspér izan, Euskal-Eriya eres yakintzan goi tontóretan ikusi artian.

1948. Agoñía I'g.

Piano eresi:

Agur Yaunak.

Oianots.

Kontrapasa.

Bersolariak.

Oñaze-egal-pian.

Beethoven-era-ra.

RESUMEN

Olaizola plantea con el estilo peculiar de su tiempo la necesidad de una nueva educación musical ante la invasión de la música mediocre a través de los mass-media que afecta sobre todo a la juventud y a las estructuras musicales del País Vasco. Defiende el txistu, las masas corales, las bandas de música y la orquesta como diversas cotas del arte musical en las que hay que trabajar sin demora y con esfuerzo. Asegura que la principal fuente de educación musical debe ser la ikastola y el principal motivo de inspiración del compositor las raíces de la música popular.

Professor Olaizola poses, with that characteristic style of his days, the need for a new musical education, facing the invasion of mediocre music through the mass-media which is affecting youth and musical structures of the Basque Country most of all. He defends the "txistu" (typical basque flute), Choral Masses, Brass Bands and Orchestras, as the different levels of musical art, on which we should work hard and without delay. He argues that the source of musical education should be found at the "Ikastolas" (Basque schools), and the composer should find the main motif of inspiration within the roots of basque folk music.